

## **HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO AZTERKETAREN INGURUKO OHARRA**

Berdintasun teknikarien lan poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren barruan, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez dutenen hautagaien IVAPeri eskatuko zaio euskara azterketaren kudeaketa egitea. Horretarako, udalak ofizioz iraila-urriko deialdian matrikulatuko ditu hautagaiak IVAPeko azterketa egiteko.

Ohar honen bidez, epaimahaiak honakoa jakinarazten die hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe daukaten hautagaiei:

**Lehenengoa.-** 4. Hizkuntza Eskakizunaren idatzizko azterketaren data irailaren 19an izango da, goizeko 8:30etan, Donostiako Elbira Zipitira Eraikinean (Ondarreta Pasealekua, 20018 Donostia, Gipuzkoa). <https://www.ehu.eus/es/web/gipuzkoa/elbira-zipitria-zentroa>

**Bigarrena.-** Ohar honen berri udaleko web gunean emango da.

**Hirugarrena.-** Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez dutenen ardura izango da IVAPeko azterketara aurkeztea eta beharrezko perfila lortzea.